

Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak badu, duela urte batzudanik, Bakearen Aldeko Hezkuntza arloari lotutako lan-batzorde bat. Batzorde honetatik **tolerantzia, biolentzi-eza** eta **Giza Eskubideen** tankerako baloreetan oinarritutako hezkuntza bat bultzatzen saiatzen gara.

Gazteekin arlo ezberdinetan Bakearen Aldeko Hezkuntza bultzatu beharra ikusita, eta alor horretan zegoen baliabide eskasia haintzat hartuta, **Tolerantziari** buruzko Karpeta Didaktiko bat mamitzea erabaki genuen orain dela urte pare bat.

Karpeta Didaktiko honen izenburua **“Educarnos en la Tolerancia Tolerantzia geure burua Hezitzea”** da. Hamabi eta hamazortzi urte bitarteko gazteekin lan egiteko materiale praktikoa bat da, irakasleentzat pentsatutakoa. Fitxaz hornitutako formato erraza dauka eta hiru ardatz nagusi ditu: migrazioa, Euskal Herriko biolentzia eta ijitoen komunitatea, tolerantziaren aurkako jarrerak ageri dituzten arazo hurbilak diren aldetik. Hezkuntza sistemako hamaika arlo ezberdin landu daitezke karpeta honen bidez, hezkuntza arautan lan egiten duten lagunentzat oso baliagarria, errekurtsu urritasuna gehien nabaritzen den eremuan hain zuzen. Bestela ere, materiale egokia da arautu gabeko hezkuntzan erabiltzeko.

Karpeta Didaktikoari buruz argibide gehiago nahi baduzue, aukera ederra duzue **gaur, Azaroak 10, Durangoko Pinondo Etxean, arratsaldeko 7’30etan egingo den aurkezpenean.** Gonbidatuta zaudete.

Mila esker.

*Bakearen Aldeko Hezkuntza Batzordea*

Bilbo, 1997ko Azaroaren 10an.

La Coordinadora Gesto por la Paz de Euskal Herria cuenta, desde hace varios años, con una comisión de trabajo que se dedica al ámbito de la Educación para la Paz. Desde esta comisión procuramos impulsar una educación en valores tales como la **tolerancia**, la **no violencia**, el **respeto a los Derechos Humanos**, etc.

Desde la consideración de la necesidad de impulsar la Educación para la Paz en los diferentes ámbitos de trabajo con jóvenes, y teniendo en cuenta la constatación de la falta de recursos que existen en este ámbito, nos planteamos hace dos años, la elaboración de una Carpeta Didáctica relacionada con la **Tolerancia**.

Esta Carpeta Didáctica, titulada **“Educarnos en la Tolerancia - Tolerantzia geure burua Hezitzea”**, se trata de un material esencialmente práctico, dirigido a educadores/as para el trabajo con jóvenes de entre 12 y 18 años, con un formato manejable de fichas y que gira en torno a tres ejes: inmigración, violencia en Euskal Herria y comunidad gitana, como realidades cercanas que presentan problemáticas de intolerancia. Nos gustaría destacar que se abordan once áreas distintas del sistema educativo en las que utilizar esta carpeta, lo cual creemos que puede ser interesante para las personas que trabajan en el medio de la educación reglada, donde más se nota el vacío de recursos. En cualquier caso, es un material que también puede ser utilizado en la enseñanza no reglada.

Si deseáis más información sobre la Carpeta Didáctica, os invitamos a acudir a su **presentación en Durango, hoy Lunes, 10 de Noviembre** en los salones de la **Pinondo Etxea a las 19’30h.**

Muchas gracias.

*Comisión de Educar para la Paz*

Bilbao, 10 de Noviembre de 1997